



ARRAUNKETAKO EUSKAL FEDERAKUNTZA  
ANOETA PASEALEKUA, 7  
20014 DONOSTIA  
G20110292

## LIZENTZIEN ZIRKULARRA 2024

### 1 – ARAU OROKORRAK.

2024ko federazio-lizentzia kirol-denboraldi baterako izango da, eta 2024ko urtarrilaren 1etik 2024ko abenduaren 31ra arteko denboraldia hartuko du barnean.

Arraunketako Euskal Federakuntza da Euskal Autonomia Erkidegoan bere kirol-modalitateari dagozkion federazio-lizentzia guztiak emateko eskumena duen erakunde bakarra.

Arraunketako lurralde-federazioak dira federazio-lizentzia horiek izapidetzeko eskumena duten erakunde bakarrak.

Azken hiruhilekoko aisialdi-lizentzia izeneko lizentzia gaitu da alta berrietarako, eta aseguruua duela baino ez du egiaztatuko. Inola ere ez da baliozkoa izango lehiatzeko, eta ez du egiaztatuko zein kategoriatakoa den. 2023ko urriaren 1etik 2023ko abenduaren 31ra arte egongo da indarrean. Epea amaitutakoan, urteko federazio-lizentzia izapidetu beharko da. Lizentzien berritzeak 2023ko azaroaren 1etik aurrera izapidetu ahal izango dira.

Gogorarazten da, 2023ko batzar orokorrean onartu zen bezala, denboraldi berriko lizentziak izapidetu ahal izateko, ezinbestekoa izango dela klubaren lizentzia ordainduta izatea.

Izapide hori egiteko, AEFren plataforma birtuala erabiliko da. Bertan, klubek beren lizentzia izapidetzeko eskatu ahal izango diete lurralde-federazioei, lizentzia hori AEFren aurrean izapidetzeko interesa adieraziz. (AEFk sarbide-datuak emango dizkizue)

### 2- DATUAK.

Hauk dira pertsona fisikoen lizentzia bakoitza izapidetzeko ezinbesteko datuak: Izena, abizenak, NANaren edo AIZren kopia, helbide osoa, telefono pertsonala, helbide elektronikoa pertsonala, lizentzia eskatzeko kluba (arbitroen kasuan izan ezik), egungo argazkia karnet formatuan, hondo zuriarekin eta bertikalean (arraunketako euskal federazioak lizentzia hori ez izapidetzeko aukera izango du lehen aipatutako baldintzak betetzen ez baditu), aitaren, amaren edo tutorearen baimena, adingabeen kasuan, eta kirola egiteko gaitasun medikoaren ziurtagiria, 2023ko urriaren 1etik aurrera eginak.

### 3- KATEGORIAK:

2024 denboraldirako lizentzien kategoriak honako hauek izango dira, betiere aldundien zehaztapenak kontuan hartuta:

2012. urtean jaiotako kimuak  
2010-2011 urteetan jaiotako haurrak  
2008-2009 urteetan jaiotako kadeteak  
2006-2007 urteetan jaiotako gazteak  
2005. urtetik aurrera jaiotako seniorrak  
Zuzendariak  
Teknikariak  
Arbitroak

Teknikarien kasuan, ez da kategoria horretako lizentziarik izapidetuko kategoria hori dagokion titulazioarekin egiaztatu gabe. Adingabeekin lan egiten duten teknikariek sexu-delituengatik aurrekari penalik ez dutela egiaztatu beharko dute. Ziurtagiria helbide honetan eska daiteke:

<https://egoitza.justizia.eus/certificado-de-delitos-sexuales/webjus01-contentgen/es/>

#### 4 – KUOTAK.

2023ko azken hiruhilekorako eta 2024rako lizentzien zenbatekoak (batzar orokorrak onartu ezean) honako hauek izango dira:

##### 2023ko urriaren 2tik aurrera izapidetzea

- Azken hiruhilekoko aisialdi-lizentzia: 5 €

##### 2023ko azaroaren 1etik aurrera izapidetzea

- Kluba-lizentzia: 500 €
- Azken hiruhilekoko aisialdi-lizentzia: 5 €
- Kimuen eta haurren kategorietako kirolarien lizentzia: 25 €
  - Gainerako kategorietako kirolarien lizentzia: 32 €
    - Zuzendaritza-lizentzia: 38 €
    - Lizentzia teknikoa: 38 €
    - Arbitro-lizentzia: 38 €
- Federazioz kanpoko estropadetarako aseguru: 8 €

Gogorarazten da 2024. denboraldirako lizentziak izapidetu ahal izateko klub bakoitzak egunean izan beharko dituela arraunketako euskal federazio honekiko betebeharrak guztiak.

#### 5- OSASUN-AZTERKETAK:

Federazio-lizentzia izapidetzeko, beharrezkoa izango da dagokion GAITASUN-AZTERKETA MEDIKOA lortu izana. Azterketa horretan, elkargokide batek egiaztatu beharko du kirolari hori arraunketa egiteko egokia dela.

Osasun-azterketak 2023ko urriaren 1a baino geroago egin behar dira. Ezin izango da lizentziaren izapidetzearekin jarraitu azterketa horretan GAITASUNA egiaztatzen ez bada.

Gaitasun-azterketa medikoa egin izana egiaztatzeko arrazoia ekainaren 11ko 14/1998 Legea betetzea da.

*Arraunketako Euskal Federakuntzako zuzendaritza Batzordea*

*AEF-FVR  
Aroeta pasealekua 7  
20014 Donostia  
943-451-891  
WWW.ARRAUNKA.EUS*